



**D. FERNANDO PRADO AYUSO, CMF,  
POR LA GRACIA DE DIOS Y DE LA SANTA SEDE APOSTÓLICA,  
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN**

**EXPONE**

Que en virtud de la ordenación en el Sagrado Orden del presbiterado, los presbíteros se unen especialmente entre sí y se consagran al servicio de la Iglesia bajo la guía y paternidad del obispo propio. “Cada uno de los presbíteros se une con sus hermanos por el vínculo de la caridad, de la oración y de la total cooperación” (PO, 8). “La fisonomía del presbiterio es, por tanto, la de una verdadera familia, cuyos vínculos no provienen de carne y sangre, sino de la gracia del Orden: una gracia que asume y eleva las relaciones humanas, psicológicas, afectivas, amistosas y espirituales entre los sacerdotes; una gracia que se extiende, penetra, se revela y se concreta en las formas más variadas de ayuda mutua, no solo espirituales sino también materiales” (PDV, 78).

Por ello, con el fin de fomentar el espíritu de familia de este presbiterio de San Sebastián, que cuida de sus miembros más débiles y ora en comunión con la iglesia diocesana por sus hijos difuntos, en uso de mi responsabilidad como Pastor de la diócesis, por medio del presente

**DECRETO**

- 1.- Que habiendo fallecido un obispo, sacerdote o diácono de esta Diócesis de San Sebastián, se publique su fallecimiento, también en forma de esquela, en, al menos, uno de los periódicos locales y se encargue un ramo de flores sencillo para la Misa exequial en nombre del obispo y de la diócesis de San Sebastián.
- 2.- Que habiendo fallecido un obispo, sacerdote o diácono de esta Diócesis, y tras haber celebrado la Misa exequial e inhumado su cuerpo, en los días más próximos a la fecha, todos los sacerdotes que en función de su ministerio ejercen un servicio pastoral y/o están incardinados en esta Diócesis de San Sebastián, celebren tres misas en sufragio por el alma del fallecido.
- 3.- Que inviten al pueblo de Dios, durante esos tres días, a orar por el difunto y por las necesarias vocaciones para nuestra iglesia.

Dado en San Sebastián, a diecisiete de febrero de dos mil veinticuatro.

+ Fernando Prado Ayuso, CMF  
*Obispo de San Sebastián*

Por mandato de S. E. Rvdma.  
Luzia Alberro Goikoetxea  
*Canciller Secretaria General*



**FERNANDO PRADO AYUSO, CMF, JAUNAK  
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,  
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK**

**ADITZERA EMATEN DU**

Presbiteroaren Ordena Sakratua jasotzerakoan, presbiteroak bereziki elkartzen dira beren artean, eta Elizaren zerbitzura sagaratzen dira, elizbarrutiko gotzaina gidari eta aita dutela. “Presbitero bakoitzak bere anaiekin bat egiten du, karitatearen, otoitzaren eta erabateko lankidetzaren loturagatik” (PO, 8). “Presbiterioaren fisionomia, beraz, benetako familia batena da, eta haren loturak ez datoz haragitik eta odoletik, Ordenaren graziatik baizik: grazia horrek apaizen arteko giza harremanak, harreman psikologikoak, afektiboak, adiskidetasunezkoak eta espiritualak bereganatzen eta areagotzen ditu; grazia hori elkarren arteko laguntza-modu askotarikoetan zabaldu, barneratu, azaldu eta zehazten da, ez soilik laguntza espiritualetan, baita materialetan ere (PDV, 78).

Hori dela eta, Donostiako presbiterioaren familia-espiritua sustatze aldera, bere kide ahulenak zaindu eta hildako semeengatik elizbarrutiarekin batera otoitz egiten duena, elizbarrutiko artzain gisa dudan erantzukizunaz baliatuz, honako honen bidez

**DEKRETUA EMATEN DUT**

- 1.- Donostiako Elizbarruti honetako gotzain, apaiz edo diakono bat hiltzen bada, haren heriotza argitara dadila, baita eskela moduan ere, tokiko egunkari batean gutxienez, eta Hileta Mezarako lore-sorta xume bat enkargatu dadila, Donostiako gotzain eta elizbarrutiaren izenean.
- 2.- Elizbarruti honetako gotzain, apaiz edo diakono bat hil ondoren, eta Hileta Meza egin eta gorpua lurperatu ondoren, data horretatik hurbilen dauden egunetan, bere ministerioaren arabera zerbitzu pastoralak egiten duten apaiz guztiek eta/edo Donostiako Elizbarruti honetan inkardinatuta daudenek, hiru meza ospa ditzatela hildakoaren arimaren alde.
- 3.- Jainkoaren herriari, hiru egun horietan, hildakoaren alde otoitz egiteko eta gure elizarentzat beharrezkoak diren bokazioengatik otoitz egin dezaten eska diezaiotela.

Donostian emana, bi mila eta hogeita lauko otsailaren hamazazpian

+Fernando Prado Ayuso, CMF  
*Donostiako Gotzaina*

Gotzain Jaunaren aginduz  
Luzia Alberro Goikoetxea  
*Kantziler-Idazkari Orokorra*